

SMART 4.0 WISE PROIEKTUAK ABIAN JARTZEKO PIZGARRI PUBLIKOEN BIDEZ FINANTZAKETA-ITURRIAK AZTERTZEA



2020ko abenduan egina:




AURKIBIDEA

1	SARRERA	2
2	ESKUALDE MAILAKO FINANTZAKETA-AUKERAK	4
2.1	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN LAGUNTZA- PROGRAMAK ...	4
2.1.1	Hirugarren sektorean energia eraginkortasunaren eta eguzki termikoaren aldeko inbertsioak sustatzeko laguntza programa 2020	4
2.1.2	Toki herri administrazioaren alorrean energia eraginkortasunaren eta eguzki termikoaren aldeko inbertsioak sustatzeko laguntza programa 2020	7
2.1.3	Hirugarren sektorean energia eraginkortasunaren eta eguzki termikoaren aldeko inbertsioak sustatzeko laguntza programa 2020	9
2.1.4	Ibilgailu efizienteen eta alternatiboen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (PAVEA) 2020	12
2.1.5	Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programa 2020	14
2.1.6	Geotermia ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programa 2020	16
2.1.7	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA: Autokontsumo elektrikorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programa 2020	17
2.1.8	Garapen bidean dauden itsasoko energia teknologia berriztagarriak erakusteko eta balioztatzeko inbertsioen aldeko laguntzen programa	19
2.2	EKONOMIA ZIRKULARREKO EKODISEINU- ETA FROGAPEN- PROIEKTUAK ETA EKOBERRIKUNTZA ESTRATEGIKOKOAK EGITEKO LAGUNTZAK – 3. ILDOA	20
3	ESTATU MAILAKO FINANTZAKETA-AUKERAK	22
3.1	EMPLEAVERDE 2020 PROGRAMA	22
3.1.1	MEJORA DEIALDIA	22
3.1.2	IMPULSA DEIALDIA	25
3.1.3	CONECTA DEIALDIA	28
3.2	PREE PROGRAMA. INSTITUTO PARA LA DIVERSIFICACIÓN Y AHORRO DE LA ENERGIA -ren (IDAE) eraikinen birgaitze energetikoa	30
3.3	INSTITUTO PARA LA DIVERSIFICACIÓN Y AHORRO DE LA ENERGIA -REN (IDEA) mugikortasun eraginkor eta jasangarrirako pizgarrien programarako laguntzak (MUGES II programa)	33
4	FINANTZAKETA-AUKERA NAZIOARTEAN	35
4.1	EUROPAKO IKERKETA- ETA BERRIKUNTZA-ESPARRU PROGRAMA	35
4.1.1	HORIZONTE EUROPA PROGRAMAREN HELBURUAK	35
4.1.2	UDALENTZAKO AUKERAK PROGRAMAREN BARRUAN.....	37
4.1.3	ELKARTEEN PARTE-HARTZEA, ROLA ETA FINANTZAKETA	40
4.2	INTERREG EUROPE PROGRAMA	42

1 SARRERA

EUDELen Gobernantza eta Udal Garapen adimendunaren Estrategia – Herri Smartik 2020 – Euskadiko Agenda Digitalaren barruan kokatzen da. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bere egin nahi du teknologia digitalek dituzten aukerak Euskadiko errealitate bihurtzeko erronka, eta erronka hori erreferentziatzeko eskualdea izatea lehiakortasunean, ongizatean, gizarte-integrazioan eta enpleguaren kalitatean, 2020ko Europan.

2020ko Agenda Digitala hedatzeko Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, EUDEL lanean aritu da urte hauetan 2017-2020 ekintza-plana hedatzen, eta, zehazki, udal-eremuko 3 eremu berritzaile garatzen eta abian jartzen: **Administrazio elektronikoa/adimenduna, gobernantza eta udalerrri adimendunak.**



Estrategia hori 4 helburu-jarduera-ildotan banatu zen:

1. Antolamenduaren eraldaketa eta kultura-aldaketa

Helburuak eta irismena: udalei zerbitzu digitalen eta adimendunen hedapenaren osagarri diren antolaketa-eraldaketako eta kultura-aldaketako ekimenak identifikatzen (aurkeztutako proposamenei buruz) eta ondoren ezartzen laguntzea.

2. Oinarrizko zerbitzuak eta plataformak

Helburuak eta irismena: EAEko udalei zerbitzu digital eta adimendunetarako oinarrizko zerbitzuak eta plataformak zabaltzen laguntzea

3. Gobernantza eta udal garapen adimentsuaren eredua

Helburuak eta irismena: gobernantza eta udal-garapen adimenduneko eredu bat garatzea eta sustatzea, bilakaera- edo heltze-mailak kontuan hartuta, udalerrri bakoitzerako berariazko plan bat emango duena, udalerrri hori lurralde-ekosistema gisa ulertuta, non hainbat eragile edo interes-taldek aktiboki parte hartzen duten.

4. Udalerrri adimendunak:

Helburuak eta irismena: udalerrri adimendunen ekosistemak planteamendu osoaren muina izan behar du: gauzatzeko oinarri izan behar du, eta koherentzia eman behar die ekimen guztiei. Ez izatea esperientziak eta ezagutza trukatzeko leku bat soilik, baizik eta udalerrrien artean ideiak eta proiektuak fabrikatzeko benetako plataforma bat (udalerrri ekoizleak – udalerrri maker)

2017, 2018 eta 2019. urteetan arlo horietan lan egin ondoren, 2020. urte honetan lan-planaren ardatza 4. helburua da, udalerrri adimenduna, **helburu komun batera bideratua: Euskadin Smart estrategia (adimentsua) batetik beste Wise (jakintsua) batera migratzeko gai diren udalerrrien sarea izatea.**

Helburu horren barruko proiektuen artean, foro batzuk egin ziren, udalerrriek eremu horretan dituzten beharrak zehazteko eta enpresa-sarearekin eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekin topagune bat sortzeko. Foro horietan jada adierazi zen udalek Smart eta Wise eremuko ekintzetarako finantzaketa eskuratzeko beharra zutela. Dokumentu honek premia hori asetzen du, horretarako balio dezaketen hainbat iturri dokumentatuz.

Beraz, jarraian azalduko ditugun lerroek proiektu jakintsuei ekiten lagundu behar diete, baina ez da ahaztu behar, neurri handi batean, epe finituak dituzten deialdietan kokatzen direla, deitzaileak horiek berritu ahal izateari kalterik egin gabe.

2 ESKUALDE MAILAKO FINANTZAKETA-AUKERAK

2.1 ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN LAGUNTZA- PROGRAMAK



2.1.1 HIRUGARREN SEKTOREAN ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN ETA EGUZKI TERMIKOAREN ALDEKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA 2020

Laguntzaren Xedea:

Salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasunean energiaren kontsumoa arrazionalizatzeari eta petrolioarekiko mendekotasuna murrizteari begira, garraio modu efizienteagoak lortzera, energia berriztagarriak erabiltzera, energiari dagokionez efizienteagoak diren teknologiak erabiltzera eta karga elektrikoa gauzatzeko eta erregai alternatiboz hornitzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eskuratzera bideraturiko inbertsioak, proiektuak edo planak sustatuz. Aipatutako horiek guztiak Euskal Autonomia Erkideagoan gauzatu eta eraman behar dira aurrera.

Onudarunak:

- Pertsona fisiko edo juridiko guztiak eta etxejabeen elkarteak
- Helbide soziala eta fiskala EAEn ez dutelarik, honako ezaugarriak dituzten pertsona juridiko hauek: EAEn beren jarduera garatzen dutenak, egoitza bat dutenak eta plantillaren zati bat atxikitzen dutenak duela bi urtez geroztik; betiere, programa hau iragarri den egunetik zenbatzen hasita
- helbide soziala eta fiskala EAEn ez duten pertsona juridikoak, eta aurreko b) paragrafoan adierazten diren baldintzak betetzen ez badituzte ere, diruz lagunduko den inbertsioa egiten badute 2. neurriaren arabera
- EAEko udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak, jarduerak aurrera eramaten badituzte EAEn
- Merkataritza sozietateak, baldin eta beren titulartasuna bere osotasunean EAEko udal batena edo batzuen dena, eta haien helburu sozialak laguntza programa honen 4. atalean jasotzen diren jarduerak gauzatea ahalbidetzen badu EAE

Aurrekontu-zuzkidura:

2.000.000 €

Diruz lagunduko diren jarduerak:

- 1. Neurria. Motor bidezko ibilgailuak
- 2. Neurria. Karga elektrikoa eta erregai alternatiboak
- 3. Neurria. Bizikletaren sustapena
- 4. Neurria. Energia azterlanak.
- 5. Neurria. Proiektu bereziak.

Jarduketak 2020/01/01etik 2021/10/31ra bitartean gauzatu eta fakturatu beharko dira.

Finantzaketa ezaugarriak

Onuradun bakoitzeko gehieneko laguntza: 200.000 €

Hona hemen laguntzen gutxieneko eta gehieneko zenbatekoen laburpena:

Medida 1	Vehículos a motor	Ayuda máxima (%) – (€)				
Línea 1.1	Ciclomotores eléctricos	20%	750 €			
Línea 1.2	Vehículos pesados eléctricos puros e híbridos enchufables	15%	50.000 €			
Línea 1.3	Material móvil eléctrico	20%	20.000 €			
Línea 1.4	Vehículos pesados de gas natural	15%	18.000 €			
Línea 1.5	Transformación de vehículos pesados a gas natural	40%	5.000 €			
Línea 1.6	Material móvil a gas natural	10%	10.000 €			
Línea 1.7	Vehículos pesados de hidrógeno	20%	50.000 €			
Línea 1.8	Material móvil de hidrógeno	20%	20.000 €			
Medida 2	Recarga eléctrica y combustibles alternativos	Ayuda máxima (%) – (€)				
Línea 2.1	Instalaciones troncales en garajes colectivos en edificios	100%	100%[número de plazas] x 200 €			
Línea 2.2	Puntos de recarga del vehículo eléctrico	30%	100.000 €			
Línea 2.3	Instalaciones de suministro de gas natural o hidrógeno	Combust. suminist.	Privadas		Públicas	
		GNC	12,5%	25.000 €	25%	50.000 €
		GNL	12,5%	37.500 €	25%	75.000 €
		GNL+GNC o GN bus RSU	12,5%	50.000 €	25%	100.000 €
		Hidrógeno	12,5%	30.000 €	25%	60.000 €
Medida 3	Promoción de la bicicleta	Ayuda máxima (%) – (€)				
Línea 3.1	Promoción del uso de la bicicleta en el ámbito laboral	[N.º bicis conv.] x 100 + [N.º bicis elec.] x 350 + [N.º anclajes] x 100 €		25%	10.000 €	
Línea 3.2	Triciclos de carga	25%	1.500 €			
Línea 3.3	Sistemas públicos de préstamo de bicicletas (bicisharing municipal)	[0,7 ≤ F ≤ 1] x (20.000 + [N.º bicis conv.] x 75 + [N.º bicis elec.] x 300 + [N.º anclajes] x 400) €		50%	50.000 €	
Línea 3.4	Aparcamiento seguro de bicicletas	Sin PMUS/PTCA		25%	250 €	
		Con PMUS/PTCA		40%	400 €	
Medida 4	Estudios energéticos	Ayuda máxima (%) – (€)				
Línea 4.1	Auditorías y estudios energéticos de flotas	Auditorías energéticas integrales:		75%	20.000 €	
		Estudios energéticos		50%	10.000 €	
		Auditorías de combustibles		50%	10.000 €	
Medida 5	Proyectos singulares	Ayuda máxima (%) – (€)				
Línea 5.1	Proyectos singulares	Sin PMUS/PTCA		Con PMUS/PTCA		
		4 pts.	45%	54.000 €	50%	60.000 €
		3 pts.	35%	42.000 €	40%	48.000 €
		2 pts.	25%	30.000 €	30%	36.000 €
		1 pto.	15%	18.000 €	20%	24.000 €

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskabideak 2020/01/30etik 2021/06/30era egin daitezke, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>

2.1.2 TOKI HERRI ADMINISTRAZIOAREN ALORREAN ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN ETA EGUZKI TERMIKOAREN ALDEKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA 2020

Laguntzaren xedea:

Euskal Autonomia Erkidegoko udal instalazio eta eraikin publikoetan energiaren aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera, bereziki eguzki energia instalazio termikoen bidez, sustatzeko jarduerak diruz laguntzea da programa honen helburu Nagusia.

Onuradunak:

- EAEko udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak
- Energia Zerbitzu Enpresa moduan diharduen edozein pertsona juridikoa

Aurrekontu-zuzkidura:

1.500.000 €

Eraginkortasun energetikoan diruz lagun daitezkeen jarduerak:

- a) Energia kudeaketarako sistema integralen ezarpena (SIGE), haren kudeaketaren irismenak ekoizpenari dagokion jarduera, klimatizazioa eta argiztapena barne hartu behar ditu, energia-eraginkortasun handiko estandarrak lortzeko etengabeko hobekuntza ekarriz
- b) Kanpo-argiteria publikoa.
- c) Lehendik dauden eraikinen energia eraginkortasuna:
 - Klimatizazioa edota ur bero sanitarioa (a.c.s.) ekoizteko instalazioak.
 - Baterako sorkuntza instalazioak.
 - Barne-argiztapen instalazioak.

Jarduketak 2020/01/01etik 2021/10/31ra bitartean gauzatu eta fakturatu beharko dira.

Energia-eraginkortasuneko finantzaketaren ezaugarriak:

Hauek dira diru-laguntzaren ehunekoak:

- a) Energia kudeaketarako sistema integralen ezarpena (SIGE): %30
- b) Kanpo-argiteria publikoa: % 20
- c) Lehendik dauden eraikinen energia eraginkortasuna: %20

Eguzki-energia termikoan diruz lagun daitezkeen jarduerak:

Tenperatura baxuko eguzki-instalazio termikoak, CPC edo huts-hodidun kolektore zapalak dituztenak, ur bero sanitarioa (a.c.s.) ekoizteko, igerilekuak klimatizatu eta berotzeko, edo ur beroa ekoizteko zerbitzu sektoreko prozesuetan. Ez da mugarik jartzen instalatu beharreko azalerari dagokionez.

Jarduketak 2020/01/01etik 2021/10/31ra bitartean gauzatu eta fakturatu beharko dira.

Eguzki-energia termikoko finantzaketaren ezaugarriak:

Laguntza diruz lagun daitekeen kostuaren % 30 arteko diru-laguntza izango da. Gainera, diru-laguntzaren ehunekoa diruz lagun daitekeen kostuaren % 5 gehiago izango da, baldin eta jarduera UEP (Udal Energia Plana) edo Paces (Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plana) baten barruan jasota badago.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskabideak 2020/01/30etik 2021/06/30era egin daitezke, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>

2.1.3 HIRUGARREN SEKTOREAN ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN ETA EGUZKI TERMIKOAREN ALDEKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA 2020

Laguntzaren xedea:

Horiek horrela, energiaren aurrezpen eta eraginkortasuna hobetzeari begira, eta energia berriztagarrien erabilera, eguzki-energia termikoaz baliatzen diren instalazioen bidez espezifikoki, sustatzeko industria alorreko instalazioetan, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Onuradunak:

- Izaera pribatuko pertsona fisikoak edo juridikoak eta etxejabeen elkarteak jardueraren bat gauzatzen badituzte EAEn
- Merkataritza sozietateak, baldin eta beren titulartasuna bere osotasunean EAeko udal batena edo batzuen dena, eta haien helburuak jarduerak gauzatzea ahalbidetzen badu EAEn
- Energia Zerbitzu Enpresa moduan diharduen edozein pertsona juridiko

Aurrekontu-zuzkidura:

1.650.000 €

Eraginkortasun energetikoan diruz lagun daitezkeen jarduerak

- a) Energia kudeaketarako sistema integralen ezarpena (SIGE), haren kudeaketaren irismenak ekoizpenari dagokion jarduera, klimatizazioa eta argiztapena barne hartu behar ditu, energia-eraginkortasun handiko estandarrak lortzeko etengabeko hobekuntza ekarriz
- b) Egungo eraikinetan energia instalazioak berritzea, eta haien ordez eraginkortasun handiko teknologiak erabiltzen dituztenak jartzeko; energia kontsumoan murrizketa nabarmena ekarri beharra dute, eta, beraz, hobekuntza esanguratsua ere ingurumen aldetik. Berritzeak era askotakoak izan daitezke, adibidez, bero eta/edo hotz sorgailuak, erregailuak, ponpak, fluidoak (beroa eta hotza) banatzeko sistemetan isolamenduak, energia erregulatzeko, kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak, etab.
- c) Barneko argi-instalazioen berritzea, eta haien ordez eraginkortasun handiko teknologiak erabiltzen dituztenak jartzeko; energia kontsumoan murrizketa nabarmena ekarri beharra dute, eta, beraz, hobekuntza esanguratsua ere ingurumen aldetik. Atal honen jarduerari dagokienez, energia eskari primarioaren 3 tep/urteko gutxieneko muga ezarri da energia aurrezpenaren inguruan.
- d) Kanpoko argi-instalazioen berritzea, eta haien ordez eraginkortasun handiko teknologiak erabiltzen dituztenak jartzeko; energia kontsumoan murrizketa nabarmena ekarri beharra dute, eta, beraz, hobekuntza esanguratsua ere

- ingurumen aldetik. Atal honen jardueri dagokionez, energia eskari primarioaren 3 tep/urteko gutxieneko muga ezarri da energia aurrezpenaren inguruan.
- e) Energia-eraginkortasun handiko baterako sorkuntza instalazio berriak, energia elektrikoa eta termikoa modu konbinatuan ekoizteko xedez.
 - f) Energia-auditoria integralak energia-eraginkortasunaz eta UNE-EN-ISO 50001 arauan oinarritutako energia kudeatzeko sistemak abiaraztea.
 - o Energia-auditoria integralak energia-eraginkortasunaz, Hirugarren Sektoreko eraikinetan
 - o UNE-EN-ISO 50001 arauan oinarrituta, Energia Kudeatzeko Sistemak ezartzea helburu dutenak

Jarduketak 2020/01/01etik 2021/10/31ra bitartean gauzatu eta fakturatu beharko dira.

Energia eraginkortasunaren finantzaketaren ezaugarriak

Proiektu eta onuradun bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga 100.000 €-koa da. Hala ere, inbertsio-mota energia-efizientziaren energia-auditoria integral gisa edo ISO 50001 arauaren ezarpen gisa tipifikatzen denean, laguntzaren guztizko eta gehieneko zenbatekoa 15.000 eurokoa izan ahalko da.

Hauek dira diru-laguntzaren ehunekoak:

- a) Energia kudeatzeko sistema integralen ezarpena (SIGE).: %30
- b) Egungo eraikinetan energia-instalazioak berritzea. %20
- c) Barneko argi-instalazioen berritzea. %20
- d) Kanpoko argi-instalazioen berritzea. %20
- e) Baterako sorkuntza instalazio berriak. %20
- f) Energia auditoria integralak energia eraginkortasunaz eta UNE-EN-ISO 50001 arauan oinarritutako energia kudeatzeko sistemak abiaraztea..
 - a. Energia-auditoria integralak energia-eraginkortasunaz, Hirugarren Sektoreko eraikinetan %50
 - b. UNE-EN-ISO 50001 arauan oinarrituta, Energia Kudeatzeko Sistemak ezartzea helburu dutenak %50

Eguzki-energia termikoko finantzaketaren ezaugarriak:

Tenperatura baxuko eguzki-instalazio termikoak, CPC edo huts-hodidun kolektore zapalak dituztenak, ur bero sanitarioa (a.c.s.) ekoizteko, igerilekuak klimatizatu eta berotzeko, edo ur beroa ekoizteko zerbitzu sektoreko prozesuetan. Ez da mugarik jartzen instalatu beharreko azalerari dagokionez.

Jarduketak 2020/01/01etik 2021/10/31ra bitartean gauzatu eta fakturatu beharko dira.

Eguzki-energia termikoko finantzaketaren ezaugarriak:

Proiektu eta onuradun bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga 100.000 €-koa da.

Tenperatura baxuko eguzki-instalazio termikoetarako laguntza diruz lagundu daitekeen kostuaren %30ekoa izango da.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskabideak 2020/01/30etik 2021/06/30era egin daitezke, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>

2.1.4 IBILGAILU EFIZIENTEEN ETA ALTERNATIBOEN ALDEKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA (PAVEA) 2020

Laguntzaren xedea:

Salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasunean energiaren kontsumoa arrazionalizatzeari eta petrolioarekiko mendekotasuna murrizteari begira, garraio modu efizienteagoak lortzera, energia berriztagarriak erabiltzera, energiari dagokionez efizienteagoak diren teknologiak erabiltzera eta karga elektrikoa gauzatzeko eta erregai alternatiboz hornitzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eskuratzea bideraturiko inbertsioak, proiektuak edo planak sustatuz. Aipatutako horiek guztiak Euskal Autonomia Erkideagoan gauzatu eta eraman behar dira aurrera.

Onuradunak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo beren egoitza soziala eta fiskala EAEn duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridiko.
- Laguntzak eskuratu ahalko dituzte, edo onuradunak izan, halaber, helbide soziala eta fiskala EAEn ez dutelarik, honako ezaugarriak dituzten pertsona juridiko hauek: EAEn beren jarduera garatzen dutenak, egoitza bat dutenak eta plantillaren zati bat atxikitzen dutenak duela bi urtez geroztik iragarri den egunetik zenbatzen hasita.
- EAEko udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak, jarduerak aurrera eramaten badituzte.
- Merkataritza sozietateak, baldin eta euren titulartasuna bere osotasunean EAEko udal batena edo batzuen bada, eta jarduerak gauzatzea ahalbidetzen badu

Aurrekontu-zuzkidura:

10.000.000 €

Diruz lagunduko diren jarduerak:

- 1 neurria: Ibilgailu arin elektriko puruen eskuratzea.
- 2 neurria: Entxufa daitezkeen ibilgailu arin hibridoak edo autonomia handituta duten ibilgailu elektrikoaren eskuratzea.
- 3 neurria: Ezin entxufa daitezkeen ibilgailu hibrido arinen eskuratzea.
- 4 neurria: Gas naturala darabilten ibilgailu arinak eskuratzea.
- 5 neurria : Hidrogenoa darabilten ibilgailu arinak eskuratzea.
- 6 neurria: Petrolio Gas Likidotuak darabiltzaten ibilgailu arinak eskuratzea.
- 7 neurria: M1 kategoriakoak izanik gasolina edo gasolioa (diesela) darabilten ibilgailuen eskuratzea, A energia-kalifikazioa dutenak.
- 8 neurria: N1 kategoriakoa izanik gasolina edo gasolioa (diesela) darabilten ibilgailuen eskuratzea, 2.500 kg-tik beherako Baimendutako Gehieneko Masa eta

Berotegi Efektuko Gasen emisioei dagokienez km bakoitzeko 114 gr CO2-tik beherako maila duena.

- 9 neurria: N1 kategoriakoa izanik gasolina edo gasolioa (diesela) darabilen ibilgailuen eskuratzea, 2.500 kg-ko edo hortik beherako Baimendutako Gehieneko Masa eta Berotegi Efektuko Gasen emisioei dagokienez km bakoitzeko 184 gr CO2-tik beherako maila duena.

Finantzaketaren ezaugarriak:

Onuradun bakoitzeko gehieneko muga: 200.000 €.

Neurriaren arabera gehieneko laguntzak honako hauek dira:

- 1 neurria: 3.000 €, Erositako ibilgailu berriaren prezioa 40.000 €-tik gorakoa ez bada (kasu horretan, ez da diru-laguntzarik jasoko).
- 2 neurria: 2.500 €, Erositako ibilgailu berriaren prezioa 40.000 €-tik gorakoa ez bada (kasu horretan, ez da diru-laguntzarik jasoko).
- 3 neurria: 2.250 €, Erositako ibilgailu berriaren prezioa 25.000 €-tik gorakoa ez bada (kasu horretan, ez da diru-laguntzarik jasoko).
- 4 neurria: 2.000 €, Erositako ibilgailu berriaren prezioa 25.000 €-tik gorakoa ez bada (kasu horretan, ez da diru-laguntzarik jasoko).
- 5 neurria: 3.000 €, Erositako ibilgailu berriaren prezioa 75.000 €-tik gorakoa ez bada (kasu horretan, ez da diru-laguntzarik jasoko).
- 6 neurria: 2.000 €, Erositako ibilgailu berriaren prezioa 25.000 €-tik gorakoa ez bada (kasu horretan, ez da diru-laguntzarik jasoko).
- 7 neurria: 2.000 €, Erositako ibilgailu berriaren prezioa 25.000 €-tik gorakoa ez bada (kasu horretan, ez da diru-laguntzarik jasoko).
- 8 neurria: 2.000 €.
- 9 neurria: 2.000 €.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskabideak 2020/01/30etik 2021/01/17era egin daitezke, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>

2.1.5 BIOMASA ENERGETIKOKI USTIATZEKO INSTALAZIOETAN INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA 2020

Laguntzaren xedea:

Helburu nagusia da energia berriztagarrien erabilera areagotzea Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eraikin eta instalazioetan.

ONURADUNAK:

- Izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridiko guztiak, eta etxejabeen elkarteak, zehazten diren jardueraren bat egiten badute EAEn
- EAeko udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak, aurreikusten diren jarduerak aurrera eramaten badituzte EAEn.
- Merkataritza sozietateak, baldin eta beren titulartasuna bere osotasunean EAeko udal batena edo batzuen dena.
- Energia Zerbitzu Enpresa (aurrerantzean "ESE") moduan diharduen edozein pertsona juridiko, aurreikusten diren jarduerak aurrera eramaten badituzte EAEn.

Aurrekontu-zuzkidura:

1.000.000 €

Diruz lagunduko diren jarduerak

- 1 ariketa: Galdara-gela berriak, eta bertan biomasa beroa ekoizteko (ur beroa, ur birberotua edo lurruna), eta, hala badagokio, hotza ekoizteko, ustiapen termikoa sortzeko erabiliko da: Potentzia izendatua > 70 kW.
- 2 ariketa: Galdara-gela berriak, eta bertan biomasa beroa ekoizteko (ur beroa): potentzia izendatua 20 kW-ekoa edo handiagoa izango da (=>20 kW), eta gehienez ere 70 kW-eraino.
- 3 ariketa: Galdara-gela berriak, eta bertan biomasa beroa ekoizteko (ur beroa): potentzia izendatua 20 kW-ekoa edo handiagoa izango da (=>20 kW), eta gehienez ere 70 kW-eraino.
- 4 ariketa: Lehendik dauden district heating erako instalazioei konexio berriak.
- 5 ariketa: Erregai konbentzionaleko erregailuen ordezkapena, eta galdaren egokitzapena, biomasa-erregailuen bitartez: Potentzia izendatua >70 kW-ekoa.

Jarduketak 2020/01/01etik 2021/10/31ra bitartean gauzatu eta fakturatu beharko dira.

Finantzaketaren ezaugarriak:

Proiektu eta onuradun bakoitzeko gehieneko laguntza: 80.000 €.

Erreferentziako kostuaren gaineko laguntzaren ehunekoa honako hau izango da:

- 1 ariketa: Erreferentziako kostuaren %25.
- 2 ariketa: Erreferentziako kostuaren %25.
- 3 ariketa: Erreferentziako kostuaren %25.
- 4 ariketa: Erreferentziako inbertsioaren %25.
- 5 ariketa: Erreferentziako kostuaren %25.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskabideak 2020/01/30etik 2021/06/30era egin daitezke, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>

2.1.6 GEOTERMIA USTIATZEKO INSTALAZIOETAN INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA 2020

Laguntzaren xedea:

Helburu nagusia da energia berriztagarrien erabilera areagotzea Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eraikin eta instalazioetan.

Onuradunak:

- Pertsona fisiko edo juridikoak, izaera pribatukoak, eta EAeko lurraldeko jabeen erkidegoak.
- EAeko udalak, udalen mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio-batzarrak.
- Titulartasun osoa EAeko udal batena edo batzuen duten merkataritza-sozietateak.
- EAEn Zerbitzu Energetikoen Enpresa gisa jarduten duen pertsona juridiko oro.

Aurrekontu-zuzkidura:

1.000.000 €

Diruz lagunduko diren jarduerak:

- 1 ariketa: Ekipo-gela berriak, eta bertan beroa ekoizteko (ur beroa, ur birberotua edo lurruna) bero-ponpa geotermikoen erabilerarekin, eta, hala badagokio, hotza ekoizteko, ustiapen geotermikoa.
- 2 ariketa: Ekipo-gela berriak, eta bertan bero ekoizteko (berokuntza eta ur bero sanitarioa) bero ponpa geotermikoen erabilerarekin.
- 3 ariketa: atorri geotermikoa duen energia erabiltzeko egungo instalazioetan lotura edo konexio berriak, district heatingcooling konfigurazioaren arabera eta bero energia eta/edo hotza ekoizteko.

Finantzaketaren ezaugarriak:

Erreferentziako kostuaren %30 finantzatuko da.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskabideak 2020/01/30etik 2021/01/17era egin daitezke, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>

2.1.7 ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA: AUTOKONTSUMO ELEKTRIKORAKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOETAN INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA 2020

Laguntzaren xedea:

Instalazioetan eta eraikinetan energia berriztagarrien erabilera sustatzeko jarduerak bultzatzea helburu nagusia izanik, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Onuradunak:

- Izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridiko guztiak, eta etxejabeen elkarteak, zehazten diren jardueraren bat egiten badute EAEn
- EAEn udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak, aurreikusten diren jarduerak aurrera eramaten badituzte EAEn.
- Merkataritza sozietateak, baldin eta beren titulartasuna bere osotasunean EAEn udal batena edo batzuen dena.
- Energia Zerbitzu Enpresa (aurrerantzean "ESE") moduan diharduen edozein pertsona juridiko, aurreikusten diren jarduerak aurrera eramaten badituzte EAEn.

Aurrekontu-zuzkidura:

6.000.000 €

Diruz lagunduko diren jarduerak:

- a) Sare elektrikotik bakartu edo isolatutako instalazio berriak; fotovoltaikoak, eolikoak edo minizentral hidroelektrikoak izan daitezke. Haietan instalatutako potentzia izendatua ezin da 250 kW baino handiagoa izan.
- b) Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak:
 - Sare elektrikora konektatutako instalazio fotovoltaiko berriak, autokontsumoa xedearekin, indarrean dagoen araudiaren arabera.
 - Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak, eolikoak edo minizentral hidroelektrikoak, baldin eta sortzeko instalatutako potentzia izendatuak 1 MW gainditzen ez badu.

Jarduketak 2020/01/01etik 2021/10/31ra bitartean gauzatu eta fakturatu beharko dira.

Finantzaketaren ezaugarriak:

Erreferentziako kostuaren gaineko laguntzaren ehunekoa honako hau izango da

- a) Isolatutako instalazio berriak:
- Isolatutako instalazio fotovoltaikoa: Erreferentziako kostuaren %25.
 - Isolatutako instalazio eolikoa: Erreferentziako kostuaren %30.
 - Isolatutako instalazio minihidraulikoa: Erreferentziako kostuaren %25.
- b) Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak:
- Eguzki-instalazio fotovoltaikoa sare elektrikora konektatuta: Erreferentziako kostuaren %25.
 - Sare elektrikora konektatutako instalazio eolikoa: Erreferentziako kostuaren %30.
 - Sare elektrikora konektatutako instalazio minihidraulikoa: Erreferentziako kostuaren %25.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskabideak 2020/01/30etik 2021/01/17era egin daitezke, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>

2.1.8 GARAPEN BIDEAN DAUDEN ITSASOKO ENERGIA TEKNOLOGIA BERRIZTAGARRIAK ERAKUSTEKO ETA BALIOZTATZEKO INBERTSIOEN ALDEKO LAGUNTZEN PROGRAMA

Laguntzaren xedea:

Itsasoko energia teknologiak berriztagarriak bultzatzeari begira, oinarri hauek arautzen dituen laguntzen programa honen helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoaren.

Onuradunak:

- EAEko pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak.
- Izaera publiko edo pribatuko eta nortasun juridikorik gabeko EAEko partzuergoak, enpresa-taldeak edo enpresa-elkarteak.

Aurrekontu-zuzkidura:

500.000 €

Diruz lagunduko diren jarduerak:

Laguntza-programa honek diruz lagunduko dituen jarduerak honako hauek izango dira:

- Olatu-energia hartzeko prototipoen proba esperimentalak erakusteko edo balioztatzeko fasean, eskala errealean edo errealetik hurbileko eskalan.
- Aerosorgailuen zimendu flotagarrien prototipoen proba esperimentalak erakusteko edo balioztatzeko fasean, eskala errealean edo errealetik hurbileko eskalan.
- Itsas aerosorgailuen prototipoen proba esperimentalak erakusteko edo balioztatzeko fasean, eskala errealean edo errealetik hurbileko eskalan.
- Goraxeago aipatutako prototipoen ekipo laguntzaile edo osagarrien proba esperimentalak erakusteko edo balioztatzeko fasean leudekeenak.
- Goraxeago aipatutako jardueren baten edo batzuen inguruko proiektuen koordinazioa.

Finantzaketaren ezaugarriak:

Diruz lagun daitekeen kostuaren %25 finantzatuko da.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskabideak 2020/01/30etik 2021/01/17ra egin daitezke, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>:
<https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>.

2.2 EKONOMIA ZIRKULARREKO EKODISEINU- ETA FROGAPEN-PROIEKTUAK ETA EKOBERRIKUNTZA ESTRATEGIKOKOAK EGITEKO LAGUNTZAK – 3. ILDOA

Laguntzaren xedea:

"Ekonomia zirkularreko ekodiseinua eta erakustaldia" eta "ekoberrikuntza estrategikoa" ildoetan proiektu berritzaileak egiteko laguntzak, bai eta hirugarren lerro bat ere, "Ekoberrikuntza-proiektuen diseinu bikaina" xede duena, beste eremu batzuetako laguntza-programetan aurkeztea laguntzeko. Lehenengo bi lerroen deialdia Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektoreko erakundeei zuzenduta dago, eta hirugarrena, berriz, irekita dago toki-eremuko sektore publikoak parte har dezan, betiere konponbidea euskal enpresek zuzentzen eta merkaturatzen badute.

3. ildoan, Ekoberrikuntza-proiektuen diseinu bikaina, berrikuntzarako laguntzen Europako (edo beste esparru bateko) programetara aurkeztu beharreko proiektuen proposamenak garatzera bideratuta dago. Proposamen horiek, oro har, garapen teknologikoko maila ertaina edo altua (TRL) izango dute, baliabideen efizientziara eta/edo berotegi-efektuko gasen isuriak murriztera bideratutako jarduera jasangarri bat sortzeko. Zehazki, berrikuntzarako laguntza-programa europarren fase bakarreko edo bigarren faseko laguntza-deialdietan (ETE tresna, Life, Europako Berrikuntza Funtsa, Ekonomia Suspertzeko Plana, Green Deal programa...) edo beste eremu geografiko batzuetako programetan (Hazitek Estrategikoa, Cdti Misiokoak...) aurkeztuko diren proiektuak babestuko dira.

3. ildoko onuradunak:

Tokiko sektore publikoko erakundeak eta erakundeak (udalak, garapen-agentziak, mankomunitateak edo kuadrillak) eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko (ZTES) edozein kide.

3. ildoko aurrekontu-zuzkidura:

90.000 €

Ezaugarriak:

Kanpo-aholkularitzaren kostuak finantzatu dira. Proiektu bakoitzeko gehieneko laguntza 10.000 €-koa da, eta diruz lagun daitezkeen kostuen %100 finantzatu da.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Laguntza-eskaerak formatu elektronikoan baino ez dira aurkeztuko IHOBEn, www.ihobe.eus webgunearen bidez. 3. Lineako eskabideak entregatzeko bi epe daude: 20/07/15eko 13: 00etan eta 2020/11/30ean.

3 ESTATU MAILAKO FINANTZAKETA-AUKERAK

3.1 EMPLEAVERDE 2020 PROGRAMA

Empleaverde programak sektore guztietan jarduera ekonomikoaren iraunkortasuna bultzatu nahi du, karbono gutxiko ekonomia zirkular baterantz bidezko trantsizioa sustatuz, biodibertsitatea enpresa-kudeaketan eta -prozesuetan integratuz eta baliabide naturalak modu eraginkorragoan erabiliz, hazkunde ekonomiko jasangarrirako eta aurrerapen sozialerako motorra eratuz, arreta berezia jarritz atzeraldian dauden sektore ekonomikoetan oinarritutako eskualdeetan, horiek suspertzea eskatzen baitute egiturazko eraldaketa, suspertze ekonomikoa eta gizarte-ongizatea lortzeko..



Helburu horiek lortzeko, programa honek **laguntza publikoen deialdi batzuk** biltzen ditu:

3.1.1 MEJORA DEIALDIA

Laguntzaren xedea:

MEJORA norgehiagoka-erregimeneko deialdi bat da, langileak lan-merkatura hobeto egokitzeko eta ekonomia berde eta urdin baterako trantsizioak eskatzen dituen gaietan eskumenak areagotzeko proiektuak egiteko. Horrela, langileen kualifikazioa erraztu nahi da lan-merkatuaren premien arabera, bai eta haien kontratu-egoera hobetu ere, enpleguari eusten zaiola bermatzeko eta lanbide-progresioa ahalbidetzeko. Proiektuak gutxienez bi autonomia-erkidegotan eta/edo hiritan garatuko dira.

Bi ildo ditu: Empleaverde MEJORA eta Empleazul MEJORA, proiektuak Empleaverde (ekonomia berde baterako trantsizioa) edo Empleazul (ekonomia urdin jasangarri bati lotutako gaiak) gaiaren barruan sartzen diren kontuan hartuta. Erakunde eskatzaileek proiektu bat aurkeztu ahal izango dute ildo bakoitzean.

Ildo	Lortu nahi den helburua	Gauzatu beharreko ekintzak
Empleaverde MEJORA	Enplegagarritasuna hobetzea eta kualifikazioa lortzea	✓ Prestakuntza-ikastaroak

Empleaverde AZUL	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Aholkularitzak ✓ Gizarte-berrikuntzako ekintzak
------------------	--

Onuradunak:

Empleaverde Programaren onuradunak pertsona juridiko publikoak edo pribatuak dira, irabazi-asmoa dutenak edo irabazi-asmorik ez dutenak, legez eraturik daudenak eta dagokion erregistroan behar bezala inskribaturik daudenak, nortasun juridiko propioa dutenak eta egoitza Espainian dutenak.

Erakunde laguntzaileak:

Komenigarritzat jotzen badu, erakunde onuradunak erakunde laguntzaile baten edo batzuen partaidetza izan ahal izango du, irabazi-asmoa duten edo ez duten eta nortasun juridiko propioa duten erakunde publiko edo pribatuena.

Aurrekontu-zuzkidura:

